

unicef.es/educa

GIZATASUN- PASAPORTEA

HAUR MIGRATZAILE ETA ERREFUXIATUEN ESKUBIDEAK



unicef 

JARDUERAK ETA BALIABIDEAK

Eskubideetarako hezkuntza eta mundu-mailako herritartasuna. 2016-2017 ikasturteko gida

EKINTZARA IGAROTZEKO DATAK

Ikasturtean zehar data jakin batzuk proposatzen ditu hezkuntza-komunitatearen elkartasuna bideratzeko:

AZAROAREN 20A: HAURTZAROAREN EGUNA



Erabiliko dugu bizitza hobea bilatzen duten haurrei harrera eman nahi diegula adierazteko. Pasaporte bat beste herrialde batzuetan sartzeko aukera eman edo kentzen digun dokumentua da. Gure ikasgela harrera-leku bilakatzeko, denon artean sortuko dugu pasaporte bat, nortasunerako, herritartasunerako eta babeserako ditugun eskubideak indartuko dituen: Pasaporte horrek munduko herritar gisa definituko gaitu, baita besteekin lotzen gaituena zer den nabarmendu ere. Haur gehiagori emango diogu harrera gure pasaportean! Deskarga ezazu pasaporte-eredua hemendik: www.unicef.es/educa

URTARRILAREN 30A: BAKEAREN EGUNA



Baliatuko dugu indarkeriazko egintza guztien aurka manifestatzeko. Gatazken eta gerren ondorioz, milioika haurrek ihes egin behar dute haien familiaren babesik gabe. Bakearen eguna baliatuko dugu elkartasun adierazpena egiteko. Munduan gertatzen diren gatazketatik ihes egiten dutenekin enpatia erakusteko funtsezko eguna dugu. Bakearen egunean aldarrika ditzakegu haur horien eskubideak: www.unicef.es/educa

MARTXOAREN 22A: URAREN EGUNA



Martxoaren 22an, Uraren egunean, konpromisoa hartuko dugu, “Nigerrerao tantak” lasterketen bidez garapen iraunkorraren alde egiteko. “Nigerrerao tantak” antolatutako lasterketek aukera ematen digute uraren eta heziketaren arteko lotura garrantzitsuari buruz gehiago jakiteko eta aldi berean haur nigeriarrei elkartasuna agertuko diegu. Elkartasunak ez du adinik. “Nigerrerao tantak” antolatzen dituen lasterketak korrika, oinez edota lauoina egin daitezke; eta besteak laguntzea dibertigarria eta hezigarria ere izan daitekeela erakusten digute. Antola ezazu #NigerreraoTantak lasterketa bat, Nigerren hezkuntzarako, osasunerako eta ura edukitzeko eskubideen alde UNICEFekin bat egiteko. Jarri zure tanta! www.unicef.es/educa

HARRERA EGITEA HEZKUNTZA IKUSPUNTU BATETIK

Munduan lekua izateko premia; bestean abegia, errespetua eta babesa sentitzeko beharra; goazen tokira goazela ongi hartuak izateko beharra, familiaren sutondo bat edukitzeko premia... hori guztia gure barrenik sakonenean ukitzen gaituen sentimendua da; haurtzaroan, bereziki. Partaide sentitzeko behar hori eskubide bilakatzen da haurtzaroari dagokionean. Haur eta nerabe guztiek dute familiako bizitza izateko eskubidea, familiarekin egotekoa, gobernu zein erakundearen babesa jasotzekoa, gaitasunak garatzeko aukera emango dien ingurune onuragarria izatekoa, eta hezkuntza eta osasuna jasotzekoa; bizilekua, jatorria eta egoera edozein direla ere. Doazen tokira doazela, eta bidea oso gogorra izanagatik ere, haurren eskubideak haurrekin batera doaz.

Bizitza etxetik milaka kilometrotara berriro hasten duten haurrei buruzko albisteetan zifrak, sortu den alarma edo beste datu deigarri batzuk izaten dira arreta-gune, arrazoiketa sakonago batera eramango gintuzketen beste kontu batzuk bazter utzita. Komunikabideek migratzaile eta errefuxiatuek bizi dituzten egoerei buruz helarazten dizkiguten gaurkotasan-datuez eta informazioaz harago, hausnarketa bat egin beharra dago, gure ikasleei bizi diren munduarekin konektatzeko modua emango diena, gertatzen dena garapenaren, herritartasun globalaren eta eskubideen ikuspuntutik ulertzeko modua.

Irakasleei zuzendutako gida honetan, hizpide ditugun gaiak lantzeko ideiak eta lanabesak eskaintzen ditugu. Gida, adin tarte ezberdinentzat egokitua dago eta eskolako curriculumeko esparru desberdinetan aplika daiteke. Zenbait galdera erantzuten saiatzen gara, nola kontzeptuzkoak hala zehaztasun terminologikoari buruzkoak, ikaste emozionalekoak edota ekintzarako eta zerbitzurako motibazioari buruzkoak. Gainera, funtsezko gaiei heltzen diegu; besteak beste, garrantzizko gaietan informazioa jasotzeko eskubidearen eta ikasleak mingarri gerta dakizkiekeen irudi edo errealitateetatik babesteko eskubidearen arteko oreka lortu beharrarena; baita ere hezkuntza-komunitate osoa –herritartasunerako eta eskubideetarako hezkuntza ikuspuntu orokor batetik– berriztapenaren eta hezkuntza-kalitatearen aldeko konpromisoan inplika dadin duen garrantziarena.



HAUR HEZKUNTZARAKO

Babeslekua, babesa, segurtasun- eta estimu-sentimendua **oinarrizko zutarriak dira haurtzaroan garapen emozional eta kognitiboa lortzeko**. Oinarrizko eskubide horiek bermatzeko gaitasuna eduki ezean, litekeena da haurren garapenerako aukerak mugatuta geratzea. Baina, hala ere, mundu osoan milioika haur daude familia giro egonkor batek eta komunitate batek eskaintzen duten babesa ez dutenak, ihes egin behar izan dutenak hondamendi eta gatazken ondorioz edo premiak eta aukerarik ezak bultzatuta. Nola lor genezake gure ikasleek egoera horrekin enpatia sentitzea, duten adina edukita, bereganatu ezin duten informazioa azaldu gabe? **Erronka horri aurre egiteko gakoak aurkeztuko dizkizuegu.**

GARATZEKO IDEIAK

- Pertsona orok familia giroa behar du.
- Edonork izan dezake etxea utzi eta beste lurralde edo auzo batera joateko premia.
- Etxe berria izango da gure sutondoa/familia, babestuta eta aterpetuta bagaude.
- Iritsi berriak babestu behar ditugu eta harrera eman behar diegu, etxean senti daitezten.
- Babesa, guztion beharra izan daiteke: euriaz, hotzaz eta soinuaz, babesteko beharra, adibidez.
- Norbaitek babesa behar duenean, aterpea eman behar diogu.

GAKO-KONTZEPTUAK

- Laguntza
- Harrera
- Babesa
- Desberdintasuna
- Elkarbizitza
- Berdintasuna

Errealitatea gogorra bada, zer?

Haurrek beren ongizaterako kaltegarri izan daitezkeen informazio eta materialetatik babestuak izateko eskubidea dute (Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, 17. kapitulua.), direla indarkeria-eszenak, direla irudi desatseginak edota oso egoera lazgarriak. Era berean, Konbentzioak dio haurrek eskubidea dutela berengan eragina duten auziei buruzko irizpidea eratzeko, eta, horretarako, informazioa jasotzea beharrezkoa dela (12. artikulua). Eskubide horiek praktikan gauzatzea ez da zaila. Ikasleak hezi ditzakegu, munduan gertatzen diren gauza on eta txarren garrantziaz jabe daitezten, inongo eduki desegokirik erabili gabe eta haurrak arriskuan jarri gabe, adina kontuan hartuta.

INFORMAZIOAK BABESTEN LAGUNTZEN GAITU



ARRISKUA HAUTEMATEA

Arrisku baten aurrean babesteko, ezagutu eta hauteman egin behar dugu. Haurtzaroan arrisku bat da galbidearen pertzepziarik eza, baina arriskua benetakoa edo egiantzekoa ez bada, behargabeko erreakzio emozional bat sortzen da.



ERANTZUN EMOZIONALA

Estresak arrisku baten aurrean jokatzen laguntzen gaitu. Erreakzioak desberdinak dira haur batetik bestera (urduritasuna, tristura, sumina, beldurra, mututasuna, eta abar), eta haren konpetentzia emozionalen eta sozialen araberakoa izango da, baita testuinguruaren araberakoa ere.



ERANTZUN KONDUKTUALA

Galbidea hautemateak eta estresak jarrera desberdinak eragiten dituzte (ihes egin, eraso, laguntza eskatu, ukatu, blokeatu, eta abar.) Egoera batean egokia den erantzuna, baliteke beste egoera batean ez izatea.



AURRE EGITEA ETA SEGURTASUNA

Arazoei aurre egiteko estrategiak lagungarriak dira, haurrek arriskuen aurrean erantzuteko. Galbide-egoera bakoitzaren aurrean egokiena den estrategia zein den ikasi eta gero, eta erantzuteko duten gaitasuna ezagututa, babestuago sentitzen dira.



HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENAK DIO...

Haurrek eskubidea dute beren babesa bermatuko duten hezkuntza-neurriak har daitezten.



© UNICEF/UNI121132/Dormino


Ipuinaren ahalmen hezitzailea

Ikasleei beren buruak arriskuetatik babesten laguntzeko, eta beraiek besteei laguntzera bultzatzeko, ezinbestekoa da segurtasuna eskaintzea, eta kontrol- eta autoefikazia-pertzepzioa garatzeko aukera ematea.

Ipuinek aukera ematen diete hurrei protagonisten zailtasun eta emozioekin identifikatzeko, baita benetako istorioek dakarten inpaktuaren aurrean babesteko ere. Fantasia erabiltzeak aukera ematen digu gai labainak eztabaidatzeko, benetan gertatutako gauzak edo albisteak erabiliko bagenitu landu ezingo genituzkeenak.

Zergatik mantentzen dituzte zuhaitz batzuek hostoak neguan?

Ipuinaren muina da ea zergatik galtzen ote dituzten zuhaitz batzuek hostoak udazkenean. Ipuin horrek aukera ematen digu harreraren inguruan hitz egiteko. Zergatik ez ditugu batzuetan besteak laguntzen? Zergatik lagundu behar ditugu? Zer sentitzen dute pertsonaiek? Noren antza izan nahi dugu? Deskarga ezazu hemendik: www.unicef.es/educa



LEHEN HEZKUNTZARAKO

Lehen Hezkuntzako haurrek gaitasun kognitiboetan, sozialetan eta arrazoibide etikoan aurrera egiten duten neurrian, gai horiek modu aberatsago eta konplexuago batean lantzeko aukera izango dugu; eta hori lagungarri izango zaie **gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna** hobetzean. Une horretan ekin behar zaie gai sozialei, historikoei eta legeen ingurukoei, mundua eta gizartea sistema gisa ulertzen eta pixkanaka ezagutzen doazen hein berean. Gainera, haurren lankidetzarako jarrera susper dezakegu, baita sendotu ere haien partaidetzarako, elkarren arteko errespeturako eta tolerantziarako jarrerak eta jokaerak. Kontuan hartu beharreko gai oinarritzko bat da ikasgelan **enpatia eta errespetu-jarrerak** lantzea, batzuetan bigarren maila batean gera baitaitezke eta garrantzitsuak dira hezkuntza-etapa honetan landu daitekeen ezagutza emozionalki integratzeko.

GARATZEKO IDEIAK

- Munduak sistema konplexu gisa funtzionatzen du: gertaerek kausak eta ondorioak dituzte, eta lotura izan dezakete itxuraz urrutikoak diren gertakariekin.
- Pertsonak munduko harreman-sareen parte dira, eta eragina dute gertatzen den horretan.
- Besteekin elkarlanean arituz gero, mundu zuzenago baten oinarriak ezartzen ditugu.
- Haur guztiek izan ditzakete arazoak une jakin batean eta, haien egoera gorabehera, laguntza jasotzeko eskubidea dute.
- Gure erantzukizuna da beste pertsona batzuei ongietorria egitea haien egoeran bageunde guri egitea gustatuko litzaigukeen modu berean.

Enpatia eta elkartasuna

Arrunt nahasten da benetako enpatia ("zer egingo nuke nik beste pertsona hori banintz") ikuspegi mugatuagoa duen "zer egingo nuke nik hori gertatu izan balitzait" pentsamenduarekin. Txikiak oraindik besteen lekuan jarri ezin badira ere, erabakigarria da gaitasun hori nerabezaroa baino lehen lortzea. Besteak ulertzea, haien motibazioak eta jarrerak zein diren jakitea –nahiz eta iritzi berekoak ez izan– ezinbestekoa da gizarterako beste konpetentzia batzuk garatzeko eta inguru konplexu, aldakor eta kultura aniztunean moldatzeko. Gida hau proposatzen dizugu beste haur batzuen bizitza-istorioak eta jasandako egoerak ikuspuntu enpatiko batetik interpretatu ahal izateko.

Bizitza-istorioak

Biolentzia eta gatazkak direla eta, beren lurraldeetatik ihes egin behar izan zuten haurren inguruko animaziozko bideo sorta bat aurkezten dizuegu. Nola emango genieke amaiera zoriontsu bat bideo horiei? Jardueren gida hemen aurki dezakezu: www.unicef.es/educa

GAKO-KONTZEPTUAK

- | | |
|---------------------|-------------------|
| • nortasuna | • harrera |
| • familia | • babesa |
| • lankidetz | • desberdintasuna |
| • interdependentzia | • elkarbizitza |
| • babeslekua | • berdintasuna |
| • migrazioa | |





ZER ESATEN DU ETA ZER EGITEN DU?

Nola jokatzeko du?
Zer ikus dezakegu?
Zer itxura du?



ZER ENTZUTEN DU?

Zer esaten dute besteek haren inguruan?
Zerk eragiten dio?
Zer ikusten du komunikabideetan?

Nolako da haren ingurunea?
Nolako familia dauka?
Zeintzuk dira bere lagunak?



ZER IKUSTEN DU?

ZERK GOGAITZEN DU?




Zeren beldur da?
Zer oztopo aurkitzen ditu?
Zeintzuk dira haren segurtasun-gabeziak?

ZER PENTSATZEN DU ETA ZER SENTITZEN DU?

Zer interesatzen zaio?
Zerk kezkatzen du?
Zein helburu ditu?



ENPATIA



Enpatia bestearen emozio, ekintza eta motibazioak ulertzeko gakoa da. Galdera batzuk bestearen lekuan jartzen laguntzen digute.

ZERK MOTIBATZEN DU?

Zer gustatuko litzaioke egitea?
Zer behar du?
Zein da haren ametsa?

BIGARREN HEZKUNTZARAKO

Nerabezaroan gure ikasleek zeresana ez ezik zeregina ere badutela sentitzen dute, beren lurraldeetatik ihesian atera diren neska-mutilen egoeren aurrean. Eskola abiapuntutzat hartuta beraz, gure ikasleen herritartasunerako eta eraldaketa sozialerako gaitasunak sustatu ditzakegu, aldaketa positiboak bultzatzeko duten gaitasuna sendotzeko, partaidetza oinarritzat hartuta.

GARATZEKO IDEIAK

- Mundu mailako arazoen eragina dute gure bizitzan, eta guk badugu zeregina horien konponbidean. Gure gaitasunak bidera ditzakegu ingurunearen hobekuntzan lan egiteko.
- Migrazioa, asiloa eta babeslekuaren inguruko kontuak –aurre egin behar diegun beste arazo askoren antzera– konplexuak, zalantzak eta kontraesanekoak dira. Beharrezkoa da ikuspuntu desberdinetatik lantzea, besteen ikuspegiak aintzat hartzea eta taldean lan egitea.
- Arazo baten alderdi ezberdinen arteko elkarrenergina kontuan hartu behar dugu: gaiak aztertzeko joera logikoaz edo arrazoizkoaz gainera, aintzat hartu behar ditugu alderdi legalak, teknikoak, kulturalak, emozionalak, politikoak eta abar.
- Denboran eta espazioan aldakorra den testuinguru kultural batean hartzen ditugu erabakiak.
- Haurren eskubideak unibertsalak dira: eskubide horiek beteko direla bermatzeko moduak aurkitu behar ditugu; egoerak, gizarte tentsioak, hesi materialak, anbigutasuna eta hutsune legalak egon arren.

GAKO-KONTZEPTUAK

- babeslekua
- migrazioa
- elkartasuna
- gizarteratzea
- eskubideak
- gizarte-justizia
- interdependentzia
- elkarbizitza
- ekitatea
- parte-hartzea

Ikasketa-zerbitzua

Anima itzazu ikasleak proiektuak diseina ditzaten, migratzaileei eta errefuxiatuei harrera hobea egiten laguntzeko zuen komunitatean. Ikasketa eta zerbitzu proiektuak aukera ona dira, ikastetxeak komunitateari dagokion auzi garrantzitsuetan parte hartu dezan.



Sormena eta "ekintzailletza"

Gizarte- ekintzailletza dugu lanerako beste ildo bat, Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan ("Enpresa eta inizatiba ekintzailea" izeneko moduluan) landu dezakeguna. Gizarte-ekonomian, ekintzailletza inklusiboan edota kooperazio-mugimenduan ditugun lan arloek aukera eskaintzen digute ikasleen sormena, ezagutza eta konpetentziak etekin soziala lortuko duten proiektuetara bideratzeko, gure komunitatean nahiz munduko beste leku batzuetan. Proiektu horiek hainbat ikasgaietatik edota modu multidiziplinarioan landu daitezke, eta gure ikasleak motiba ditzakete berrikuntza sozialeko osagai bat duten garapen akademiko eta profesionaletarantz.



Hitzak baino gehiago

Hizkuntzaren erabilerak definitzen du gure errealitatea, baita mundua eta besteak ikusteko dugun modua ere. Zer dago "errefuxiatu" eta "migratzaile" hitzen atzean? Nondik datoz hitz horiek? Zer esanahi dute? Nola erabiltzen ditugu? Egun batez euskara-eskola hausnartzeko espazio bihurtzea proposatzen dizugu: hausnartu lengoaiari eta haren erabilerari buruz, eta laguntza-tresna gisa erabiltzeko zer nolako gaitasuna dugunari buruz. Deskarga ezazu aurkezpena hemendik: www.unicef.es/educa



ZURE NIGERRERAKO TANTAK LASTERKETA ANTOLATU EZAZU



Parte hartu
ezazu 2016-2017
ikasturteko
lasterketetan.

Eskatu bizkarrerako zenbakiak
eta antolatu lasterketa
solidarioa, Nigerrekin bat
egiteko.

“Nigerreko tantak” kanpainak ikastetxeei laguntzen die Nigerreko haurren eskubideen aldeko lana sustenga dezaten. Hezkuntza-komunitatearen mobilizazioak aldaketa errealak lortzen ditu Nigerreko haur eta gazteen bizitzetan, tanta-lasterketen eta beste ekintza batzuen bitartez. “Nigerreko tantak” 2008-2009 ikasturtean jarri zen martxan, eta geroztik, urak oinarritzeko gizarte-eskubide gisa, eta haurren biziraupenean, zer nolako garrantzia duen ezagutarazten lagundu du. Kanpaina horren bitartez, adin tarte ezberdinetako haurrek gehiago jakin dute Nigerri buruz, nork bere ahalegintxoak eginez, nork bere tantak jarritz, UNICEFek lurralde horretan egiten duen lana babesteko. Informazio eta baliabide gehiagorako: www.unicef.es/educa

Lortuta!

100.000 partaide baino gehiago izan ziren 2015-2016 ikasturtean.
Helburua: saneamendua eta ura duten **50** eskola lortzea

Ura, higieena eta saneamendua garrantzitsuak dira haurren eskubide batzuk behar bezala bete daitezen.

URA

Ikastetxeetan ur- eta saneamendu-instalaziorik ez edukitzeak absentismoa eta eskola-uztea eragiten ditu. Gainera, haur asko dira eskolara maiz huts egin behar izaten dutenak edateko urik ezaren eta higieen-arazoaren ondoriozko gaixotasunengatik, eta horren eraginez ezinezko bihurtzen zaie ikasketa-erritmo egokiari eustea.

HEZKUNTZA

**ESKUBIDE
BILAKATZEN
DIREN TANTAK**

Ura gaixotasun infekzioso larri askoren transmisio-bide izan daiteke; esaterako, koleraren, polioaren eta hainbat parasito motaren transmisio-bidea.

OSASUNA

NUTRIZIOA

Uraren kalitate txarrak eragindako gaixotasun diarreikoek haurren osasun-egoera okertu besterik ez dute egiten, eta horren ondorioz, askotan, haurrek desnutrizio larria pairatzen dute. Egoera horrek arriskuan jartzen du haurren bizitza edota haren garapen fisikorako aukerak.

“Hezkuntza da kendu ezin diguten gauza bakarra”

Gaur egun, Nigerrek krisi bikoitza bizi du barneko lekualdatuekin eta iheslariekin, lehortearen ondorioz batetik eta terrorismoaren erruz, bestetik. Nigerrek ondoko herrialdeetako iheslariak hartzen ditu eta, aldi berean, gero eta handiagoa da jasaten ari den exodoa landa-eremuetatik hiriburura edota lurraldeko errepide nagusiaren inguruko kokalekuetara, non familien garapena ezinezkoa den, baina babestuak sentitzen diren Boko Haram-en erasoen aurrean.

UNICEF 1982tik ari da lanean Nigerreko haurren eskubideak babesten eta bultzatzen, garapenerako eta ekintza humanitariorako lankidetzaren bitartez. UNICEFek, herrialde honetan, larrialdiko eta laguntza humanitarioko jardunaren barruan, haur errefuxiatu eta lekualdatuekin lan egiten du, haurrek beren eskubideak izan ditzaten –hezkuntza, besteak beste. Kanpin-denda batean bada ere.



© UNICEF/UN016155/Cherkaoui

Errefuxiatu, baina ez garaitu

Mariam, 14 urteko neska batek, bizirik irtetea lortu zuen Boko Haram-ek haren herriaren aurka burututako hiru erasoaldietatik. Nigerren babeslekua bilatu du eta bere egoera bizi duten gazteak laguntzen ditu bolondres gisa. “Haien egoerarekin bat egiten dut. Haurren aurkako gehiegikeria eta ezkontza goiztiarren kasuak daudenean, laguntza jasoko dutela ziurtatzen dut.” Jarraibide bikaina!



AURKITU ELKARTASUNAREN SUPER-BOTEREA FREDO FOXEKIN

Fredo Fox jakin-nahi handiko bidaiaria da, munduko bazter guztietako jendearekin hitz egitea gustuko duena. UNICEFekin egiten dituen bidaietan, garapenerako lankidetzari eta elkartasunari buruzko gauza berri asko ikasten ditu, eta atsegin du etxera bueltatzen denean ikasitakoa adin guztietako haurrekin partekatzea.

Berriemaile ausarta dugu Fredo Fox, eta beraz, uste du bidaiatzea garrantzitsua dela –nahiz eta bidean arriskuak, distantzia eta zailtasunak aurkitu– haurrekin aurrez aurre hitz egiteko, baita haur horiei beren eskubideak lortzen laguntzen dieten helduekin ere. Denek dute haurren eskubideen inguruko zeresan garrantzitsua!

Beti lagundu behar da kanpainaren denboraldi berrian, Fredok eramaten gaitu ikustera nolakoa den hainbat haurren errealitatea: egunero eskolara oinez joanez, musika adierazpide gisa erabiliz, bakearen alde jolastuz edo haien herriaren tradizioak bizirik mantenduz defendatzen dituzte beren eskubideak.

Fredok abentura asko bizi ditu, beste hizkuntza batzuetako hitzak ikasten ditu, jaiotze berriek zer gosaltzen duten konturatzen da, bakea eraikitzen laguntzen duten



Nahi al duzu Fredo Fox zure ikastetxea ikustera joatea?



jokoak ikasten ditu, altxor bat aurkitzen du, UNICEFen borondate onaren enbaxadore bihurtu diren pertsonekin hitz egiten du, eta azkenik, haurrak gonbidatzen ditu **Haurren eskubideen super agente izatera.**

Guztia dago modu dibertigarri batean azalduta; izan ere, gazteenak dira sail horren protagonistak. Fredok bizitako esperientzien inguruan galdetzen die haurrei, baita zer pentsatzen duten eta nola sentitzen diren ere. Bideoek ikasgelan hitz egiteko bidea ematen duten fitxa didaktiko bana dakarte. Fitxa horien ondoriozko hizpide izaten dira haurren eskubideak, Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta pertsona bakoitzak munduko herritar moduan zer duen egiteko irtenbideak bilatzen eta mundu hobea lortzeko konpromisoan. Informazio gehiagorako: www.unicef.es/educa

Nahi al duzu Fredo Fox zure ikastetxera joan dadin haurren eskubideen inguruan era dibertigarrian mintzatzeko? Elkartasunari buruz hitz egingo dugu, baita munduko herritar gisa mundu hobea lortu ahal izateko egin dezakegunari buruz ere.

Topaketa horretan haurren parte-hartzea sustatzen da bideo, joko, antzerki eta hausnarketarako gaien bitartez. Bila ezazu tarte bat ikasturte honetan Fredorentzat!
www.unicef.es/educa



ESKUBIDEETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA

Eskubideetarako eskolak...

...ikasleei laguntzen die beren eskubideak ulertzen, horiek praktikan jartzen, baita besteen eskubideak errespetatzen, defendatzen eta sustatzen ere.

...errespetu eta partaidetza giroa indartzen laguntzen du, ikastetxeak gauzatzen dituen ekintza guztiak tartean sartuko dituen.


...ikastetxearen ingurukoekin elkarlanean jarduten du: erakundeekin, auzoarekin eta udalarekin, ikasleentzat haurtzaroaren babes-esparru bat lortzeko, ikastetxean eta ikastetxetik kanpo.

...hezkuntza- komunitate aktiboa eta solidarioa eraikitzen du, bai ikastetxean bai mundu osoan haurtzaroaren garapenik handiena lortzeko.

AUTOEBALUAZIOA

Lehen urratsa eskubideetarako eskolarantz

Haurren eskubideekin konpromisoa duen ikastetxe bat lor daitekeen helburu bat da, nahiz eta zaila ematen duen horretan hasteak. Hasierako autoebaluazioaz baliatuta, ikuspuntu desberdinetatik azter daiteke zein modutan integratzen dituen haurren eskubideak zuen ikastetxeak. Gainera, autoebaluazioak sortzen duen emaitza-txostenak ahalbidetuko du hobekuntzarako proposamenak bateratzea eta ekintza-plan bat lantzea. Hasi autoebaluazioa egiten: www.unicef.es/educa



PRESTAKUNTZA

Irakasleei zuzendutako "Eskubideetarako hezkuntza" ikastaroa urtean zehar egiten da hainbat unibertsitatearekin elkarlanean. Ikastaroa online izango da, eta irakasleen etengabeko prestakuntzan hiru kreditu ofizialen balioa du; hau da, 75 irakastorduren baliokide da. Jarrai iezaiguzu Facebook eta Twitter-en hurrengo deialdia ez galtzeko:





IRAKASLEENTZAKO GIDA

Dagoeneko argitara emanak dira irakasleak eta zuzendaritza taldeak haurren eskubideen integrazioan orientatzeko bi gida:

- Autoebaluazio gida
- Curriculum-integrazioarako gida

Esteka honetan eskuragai:

www.unicef.es/educa

Haurren eskubideetarako hezkuntzaren onurak



Haur eta nerabeentzat

- Eskubideen ezagutzak babesten laguntzen die.
- Jarrerak eta balioak garatzen dituzte, herritartasunerako eta demokraziarako gaitasunak eraikitzen dituztenak.
- Beren ingurunea hobetzean positiboki jarduteko ahalduntzen dira.



Irakasleentzat eta ikastetxeentzat

- Pedagogia berritzailea, interaktiboa eta ikaslea duena ardatz.
- Pentsaera eraikitzailea, gatazken ebazpena eta enpatia garatzeko laguntza.
- Eskola-giroaren hobekuntza bultzatzea, errespetuan eta eskubideetan oinarritutako kultura baten bitartez.



Familiarentzat eta tokiko komunitateentzat

- Onurak ekartzen dizkie gai orokor eta eskubideei buruz haurrek duten ezagutzak.
- Onurak ekartzen dizkie haurrek komunikazioan eta jarreran egindako aurrerapenak.
- Onurak ekartzen dizkie gazte-ekimenak praktikan jarritako komunitate-ekimenak.



Gobernu eta erakundeei zuzenduta

- Giza-eskubideen inguruko konpromisoak lortzea laguntzen du.
- Eremu sendo bat eskaintzen du, hezkuntza eta curriculumaren hobekuntzarako gaiak uztartzeko.
- Hezkuntza-kalitatea hobetzeko ahaleginetan parte hartzen du.

ZALANTZAK?

IHPen eskubideei dagokien hezkuntza-ikuspuntua abiarazteko prozesuan suertatzen den edozein argibiderako edota Autoebaluazioarako Gida paperean doan eskatzeko, idatzi helbide honetara: educacion@unicef.es



GIZATASUN- PASAPORTEA

HAUR MIGRATZAILE ETA ERREFUXIATUEN ESKUBIDEAK



© UNICEF

Malak, 7 urte:

“Urak nire belaunetaraino betetzen zuen txalupa. Gizon baten magalean eserita nindoan eta nire amak arduratzen ninduen, bizkarrak min handia ematen baitio. Txalupa erditik puskatuko ote zen beldur nintzen; hondoratu eta hilko ote ginen beldur nintzen. Ama zen nire ardura eta ni nintzen nire amarena”.



HAURRENTZAT ARRISKUZ JOSITAKO BIDEA

Munduan dauden hirurogei eta bost milioi haur eta nerabe dira gatazka armatuetatik, pobreziatik eta hondamendi klimatikoetatik ihesean dabiltzanak, “etxea” deitzeko moduko leku baten eta bizitza berri baten bila. Planetako pertsonarik kaltetuenen artean daude: mugaldeko haurrak dira.

Ez du ematen zifra hori denbora joan ahala gutxituko denik. Ezta haur horiek beren eskubideak lortuko dituztenik ere, gizarte osoaren eta erakundearen esfortzu gehigarri bat gabe. Gure garaiko erronkarik handienetarikoa bat dugu aurrean.

Haur eta emakume migratzaileak dira ahulenak –agirik gabekoak batez ere– salerosketen, sexu-abusuen eta esplotazioaren aurrean. Iraganbideko eta helmugako herrialdeetan migratzaileak bereizkeria, pobrezia eta gizarte-bazterketaren biktima bihurtzen dira.

UNICEF han bertan ari da lanean, krisi horiei erantzuteko programa eta politikek haurren eskubideak eta beharrak lehenesten dituztela bermatzeko. Era berean, errefuxiatuen ibilbideetan behar den laguntza humanitarioa handitzeko lan egiten du, eta adin bakoitzerako egokiak diren ur eta janariaren hornikuntza eta gune atseginak ezartzeko; batetik, haurrek jolastu eta laguntza psikosoziala jaso dezaten, eta, bestetik, emakumeek atsedena hartu eta beren haurtxoak zaindu ditzaten.

Gainera, UNICEFek lanean jarraitzen du exodoaren arrazoiak nabarmentzen diren lekuetan. Milioika dira gatazka, deserrotze, pobrezia eta azpigarapen egoerak bizi dituzten pertsona kaltetuak. UNICEFek bere konpromisoa eta esfortzua mantentzen du laguntza humanitarioari eta garapen iraunkorrari, konponbidea ematea helburu duten zerbitzuetan aurre egiteko; haurrek behar handien duten tokietan.

Egoera horretan, haurrak dira kaltetuenak. Askok familiarekin bidaiatzen dute eta beste askok beren kabuz. Denek dute babes-premia, eta merezi dituzte Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak bermatzen dituen eskubideak.

EZBEHARRARI BABES- IKUSPUNTU BATETIK EGIN

Munduan zehar etxe bila bidaiatzen duten milioika haurren egoera ez da dramatikoa, tragikoa baizik. Gure ikasleentzat, istorio horien berri komunikabideen, kaleko elkarrizketen edo laguntza-kanpainen bidez jasotzen dutenez, oso aztoragarria izan daiteke deserrotze horiek ezagutzea. Errealitate hori ezagutzaren ondorio negatiboak ekiditea eta hasierako sentimenduak besteei laguntzeko motibazio bilakatzea hezitzaile gisa ditugun erantzukizunen zati bat dira. Hezitzaileok eta familiak lagun diezaiekegu gazteenei haien inguruko munduan gertatzen diren ezbeharrei aurre egiten eta zentzua ematen.



© UNICEF/UN05568/Georgiev



• **Baliozkotu haien sentimenduak:** Utz iezaezu sentitzen dutena adierazten, jakin dezaten normala dela tristezia, amorrua, beldurra eta beste emozio batzuk sentitzea biolentzia eta injustizia ikusitakoan treba itzazu haien emozioei aurre egiten jakiteko, eta ziurtatu ulertu dutela haien etxean, eskolan eta komunitatean babestuta daudela.



• **Lehenbizi, entzun:** Eska iezaezu gertatzen denaren inguruan dakitena azaltzeko, horri buruzko suposizio hutsean ibili beharrean. Anima itzazu galderak egin ditzaten, entzun itzazu ondo galdera horiek, eta emaezu behar bezalako garrantzia.



• **Argi eta garbi erantzun:** Erantzun hurrei egin dituzten galderen eta jakin nahi dutenaren arabera. Erantzuteko orduan, adina kontuan hartu eta saiatu lasai erantzuten, modu zuzen eta zehatz batean. Jakinarazi ez dituzula galdera guztien erantzunak, eta baliatu aukera hori elkarrekin erantzunak bilatzeko. Aldi berean, ona da jakin dezatela galdera batzuk ez dutela erantzunik; esaterako, zentzurik gabeko biolentzia-kasuak gertatzen direnean, edo jendeak gauza txarrak egiten dituenean. Kasu horiek ulergaitzak dira haur zein nagusientzat.



• **Biolentzia-eza sustatu:** Azpimarra ezazu biolentzia ez dela bidea, eta mendekuzko desira eta errepresalia ez direla emozio eraikitzaileak. Biolentziari aurre egiteko, biolentziakoak ez diren bideei buruz hitz egin, baita arazoei irtenbidea modu baketsuan emateari buruz ere.



• **Saihestu indarkeria eta dramak agertzen dituzten irudiak:** Ez sakondu ezbarrean, eta manten itzazu haurrak –batez ere txikiak– komunikabideek hedatzen dituzten irudi eta istorio aztoragarrien errepikapenetik urrun. Horren ordez, munduko pertsona gehienek elkartasuna eta babesa erakusten duten istorio eta irudiak azaldu. Utziezu elkartasuna adierazten duten egoeren partaide izaten, hobekuntzaren alde egiten duten pertsonekin bat egiten dutela sentitzeko.



• **Filtratu komunikabideekiko jarrera:** Komunikabideekiko haien harremana filtratzeaz gain, lagundu ikasleei komunikabideek hedatzen duten informazioa ulertzen. Egungo gertaerak ikusi, entzun eta horien inguruan komentatzeak, mezu konplexu eta desberdinak ulertzen lagunduko die, alfabetizazio mediatikorako eta pentsamendu eraikitzaileko gaitasunak sendotuz.



• **Erreparatu garrantzitsua den horri:** Historiaren ikuspegi sentsazionalistarekin tematu beharrean, susta ezazu azpiko arazoen ikasketa, mundua modu sakonago eta zehatzago batean uler dezaten.




• **Baliogabetu aurreiritziak eta gorrotoa:** Kontuz ibili estereotipoak ez betikotzeko, kultura eta erlijio talde ezberdinak edota beste tokietako pertsonak tartean sartzen dituzten gertaerak aipatzerakoan. Nabarmen itzazu komunikabideek dituzten joerak, hurrek joera horiek identifikatu ahal izateko eta intolerantziari erantzuteko gaitasuna sendotzeko. Azpimarratu ezazu aurreiritziak eta diskriminazioa negatiboak direla, eta landu itzazu sentimendu horiei kontra egiteko moduak.

UNICEF US Fund-ek egindako How to Talk with Children in the Aftermath of Violenceen egokitapena.

MILURTEKOAREN GUDAK


Zenbat gerra izan dira mende hasieratik? Bi edo hiru gehiegi lirateke, baina ondorengo grafikoak errealitate beldurgarri bat azaltzen digu. Gatazka horietako bakoitzaren atzean, etxea eta maite duten jendea galdu duten pertsonak daude, ihes egiteko beharra izan dutenak. Deskarga ezazu grafikoa esteka honetan: www.unicef.es/educa



XXI. mendea hasi zenean gerra asko zeuden, ordurako milaka hildako eragina zituztenak. Mende honen lehenengo hamarkadatan ez dira gauzak hobetu, eta hainbat gatazka armatu (matxinadak, gerrillak, diplomazia-krisialdiak) milioika haurren bizitza triskatzen ari dira, lapurtzen ari zaizkie familia, etxebizitza, eskubideak eta haurtzaroa bera. Grafikoan ikus ditzakegu mende honetako gatazka ezagun eta ezezagun batzuk.


EZBEHAR NATURALAK ETA ARRISKU EREMUAK

Lurrikarek, suteek, uholdeek eta lehorteeek familia baten bizibidea ezereztu dezakete, eta familia horretako kideak bizimodua beste lekuren batean bilatzeko beren etxea uztera behartu ditzakete. Horiek dira mende honetan kaltetu gehien sortu dituzten hondamendi naturalak. Deskarga ezazu mapa esteka honetan: www.unicef.es/educa



XXI. mendea hasi zenetik hondamendi natural asko gertatu dira planetaren hainbat zonaldean, kalte ugari eraginez: biktimak, lekualdatuak, errefuxiatuak, kalte ekonomikoak eta ingurumen-kalteak. Laukiek adierazten dute zeintzuk diren mende honetan eragin gehien izan dituzten hondamendiak. Ikonoek eta lerroek aldiz, hondamendi natural bat izateko arrisku gehien dituzten zonaldeak adierazten dituzte.

🌊 Lurrikara 🌀 Tsunamia 🌀 Zikloia, tifoia, urakana ☀️ Sumendia ☀️ Bero-bolada ☀️ Lehortea



ERREFUXIATUAK ZIREN

Autore, zientzialari eta politikari ospetsuak ere izan dira migratzaile edo errefuxiatu. Batzuek lurraldea utzi behar izan zuten, ezin izan baitzituzten beren ideiak garatu; beste batzuk jazarriak izan ziren haien lana edo ideologiagatik, eta beste batzuek gerratik eta pobreziatik ihes egin behar izan zuten. Nolakoa izango litzateke mundua haien lurraldeetan geratu izan balira?

GARRANTZIA DUTEN HITZAK


Gai baten inguruko terminologia ez ezagutzeak gaia ondo ez ulertzea eta gai horretatik urruntzea dakar.

Deskarga ezagu migrazio eta babesleku terminoen inguruko glosarioa esteka honetan: www.unicef.es/educa

aberrigabeko birkokatze lekualdatuak
emigrazio mugari pasaporte
iheslari bertakotze
aditu-ihes xenofobia

LAGUNTZEN ETA SENDATZEN DUEN ARTEA

Mundu osoan arlo askotako artistak saiatu dira iheslari eta migratzaileen egoerari buruzko gogoeta bat eragiten: pintura, eskultura, bideo, dantza, kaleko ekitaldiak... Obra horietako batzuen garrantzia jendearen arreta erakartzeko eta harrera- zein laguntza-kanpainak sendotzeko baliagarria izan da. Modu berean, harrera- edo iheslari-zentroetan dauden haur askok erabiltzen dute adierazpide artistikoa arazo emozionalak gainditzeko. **Anima itzazu ikasleak haur errefuxiatuen alde egiteko balio duten adierazpideak aurkitzera.**




HAUR- ETA GAZTE- NARRATIBAREN BOTEREA

Haur- eta gazte-literaturazko zenbait liburuk lantzen dituzte migrazio, harrera, iheslari, deserrotze eta abarri buruzko gaiak. Liburu horiek etxea eta herrialdea utzi behar izan dituzten haurren ikuspuntuak ulertzea dute helburu. Hona hemen horietako batzuk:

#01



#02



#03



#04



#05



#06

- #01. **Cuando Hitler robó el conejo rosa** (Judith Kerr). #02. **Akim corre** (Claude K. Dubois).
 #03. **En el mar hay cocodrilos** (Fabio Geda). #04. **Migrar** (José Manuel Mateo/Javier Martínez Pedro).
 #05. **El diario de las cajas de fósforos** (Paul Fleischman). #06. **Me llamo Yoon** (Helen Recorvits).



DATUAK

Errefuxiatuei buruzko datu, zifra eta joeren inguruko azterketak munduko egoera hobeto ulertzen laguntzen digu. Datu horiek non aurkitu:

- Errefuxiatuei buruzko ACNURen datu historikoak: <https://data.unhcr.org/dataviz/>
- Asilo-herri bakoitzeko biztanleria errefuxiatua: (Munduko Bankua): <http://data.worldbank.org/indicator/SM.POPREFG>
- The Refugee Project: <http://www.therefugeeproject.org/>
- Migrazioen munduko datu-basea (NBE): <https://esa.un.org/unmigration/>
- Nazioarteko migrazio-mugimenduen estatistika (MPI): <http://www.migrationpolicy.org/programs/data-hub/international-migration-statistics>
- Migrazioari buruzko Eurostat-en estatistikak: http://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php/Migration_and_migrant_population_statistics

GARAPEN IRAUNKORRA ETA DEMOGRAFIA-MUGIMENDUAK



Garapen Iraunkorrerako
MUNDU MAILAKO HELBURUAK

Garapen Iraunkorrerako Helburuen artean migrazioari, lekualdatzei eta errefuxiatzeari bereziki zuzendutakorik ez dagoen arren, garapen iraunkorraren agendan presente dagoen gai bat da hau. Ezinezkoa izango da 2030erako ezarrita dauden garapen-helburuak lortzea, munduak ez badio ekiten mende honetako demografia-zifra eta biztanleria- mugimenduen atzean dauden errealitate pertsonalak, ekonomikoak, sozialak eta gizarte-eskubideei buruzkoak lantzeari. Nolakoa nahi dugu izatea mundua 2030ean? Zer egin dezakegu hori lortzeko?

MIGRAZIOA, BABESLEKUA ETA HARRERA GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN IKUSPUNTUTIK

Garapenerako hezkuntzaren 5 gako-kontzeptuek aukera ematen digute gai horiek ikuspuntu desberdinetatik lantzeko. Galdera batzuk proposatzen dizkizuegu hausnarketarako.



Argitalpena

UNICEF Espainiako Batzordea
www.unicef.es/educa

Diseinu grafikoa

Rex Media SL

ISBN: 978-84-942273-3-2

Freepik.com jatorrizko irudietan oinarritutako irudiak
Garapen Iraunkorrerako Helburuen logotipo eta ikonoak:
Trollbäck+Company / Project Everyone

Erabili diren mapak ez dira eskalazkoak eta estilizatuta daude. Ez dute adierazten UNICEFek zer jarrera duen ezein zona edo herrialderen lege-egoerarekiko, ezta herrien arteko mugetik ere.

Argitalpen hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECIDek) finantzaturiko proiektu baten parte da. Argitalpen honen edukiak ez du nahitaz islatzen AECIDen iritzia.

Haurren eskubideen, garapen iraunkorrerako eta mundu-mailako hiritartasunaren inguruko ekintza, baliabide eta hezkuntza materialak UNICEF Espainiako Batzordeak Haurren Eskubideen Hezkuntza eta Hiritarsun Globaleko lanaren parte dira, lehenago Enredate markapean eta enredate.org web gunean argitaratuta egon direlarik. Bertan erakutsitako ekintza eta iritziek ez dute zertan UNICEFen ikuspuntua isladatu behar.

UNICEFek haur guztien ongizatea eta eskubideak sustatzen ditu egiten dituen ekintza guztietan. Gure aliatuekin batera, 190 herrialde eta eremutan lanean dihardugu konpromiso hau ekintza praktikoetan bilakatzeko, gure esfortzuak batez ere ume ahul eta baztertuenetara bideratuz, haur guztien ongizaterako, edonon.



Argitalpen hau Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivar 4.0 Internacional lizentziapean sortua izan da, beste lizentzia mota bat espreski aipatzen den edukietan izan ezik.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO MUNDU MAILAKO HELBURUAK



FINANTZATZEN DU:



LAGUNTZEN DU:

unicef.es/educa

